

Reuters: berri fresko-freskoak txalupan



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Akisgran, 1850. Paul Reuter alemaniar enpresariak telegrafo linea bat jarri zuen abian, teknologia berri horren bidez berriak askoz azkarrago hedatzen zirela eta berriak inork baino lehenago jasotzea negozio probetxugarria zela jabetuta. Printzipioz, linea Berlinera iritsiko zen, baina Reuter konturatu zen Akisgran Bruselarekin lotzeak etekin gehiago ekarriko zizkiola, Belgikako hiriburua XIX. mendeko finantza gune nagusietakoa baitzen.

Londres gune are garrantzitsuagoa zen eta hara joan zen enpresaria 1851n, Mantxako kanala Calaiseko itsasartetik zeharkatuko zuen “urpeko telegrafoa” prestatzera. Urte amaieran, telegrafo linea abian zen eta, gainera, Reuterrek Londresko burtsarekin negoziatu zuen bertako finantza informazioa Europan zabaltzeko. Tratu bera egingo zuen aurrerago Parisko burtsarekin.

Baina hazten jarraitzeko hurrengo jomuga ozeanoaz bestaldean zegoen, AEBetan, eta Atlantikoa zeharkatuko zuen kablerik ez zegoen. Konponbidea pentsatu baino hurbilago topatu zuen, Irlandako hegoaldean. Reuterrek telegrafo linea Cork hiriraino eraman zuen. Ipar Amerikatik zetozen ontziak irlandar kostaldetik gertu pasatzen ziren Londresera iritsi baino lehen. Puntu horretara iristean, transatlantikoan AEBetan



PAUL JULIUS REUTER (1816-1899)

RUDOLF LEHMANN

ko informazioz, dokumentuz, eskutitzez eta telegramaz betetako edukiontzia prestatzen zituzten. Ondo itxi eta uretara botatzen zituzten. Edukiontzia agentziaren txalupa batek jaso eta lehorrera eramaten zituen orduan. Informazioa Corketik berehala telegrafiaturik, itsasontzia baino lehen iristen zen Londresera. Esaterako, 1865ean, AEBetako presidente Abraham Lincoln hil zutenean, Reuter's Telegram Company izan zen Europan horren berri ematen lehena.

Sortu eta 170 urtera, Reuters munduko berri agentzia nagusietakoa da oraindik. 94 herrialdetako 200dik gora hiritan ditu egoitzak. Baina eskandalu batzuk

ere pilatu ditu azken urteetan. 2006an *Reutersgate* delakoa gertatu zen: Libano eta Israelen arteko gatazkari buruzko argazki batzuk manipulatu izanaz akusatatu zuten agentzia. 2016an, Bagdadeko merkatuan 8 hildako eragin zituen atentatu baten berri eman zuen agentziak, baina hainbat iturrik albisteak faltsutzat jo zuten; ustezko biktimak figuranteak omen ziren. Iaz argitaratutako dokumentu batzuei esker egiaztatuta zen 1960ko eta 1970eko hamarkadatan Erresuma Batuko gobernuak finantzatu zuela Reuters, Ekialde Hurbilean hedatu zedin...

Gaur egun, itxuraz, txalupatxo bat ez da nahikoa konpetentzia atzean uzteko. ●



Arrapalak eta mugikortasuna Grezian

Antzinako Greziako hainbat tenpluen sarreretan, eskailerez gain, arrapalak topatu dituzte. Epidauroko Asklepio medikuntzaren jainkoaren tenpluan (irudian), esaterako, 11 arrapala iraunkorren arrastoak daude. Elementuok ez dira orain arte berriaz aztertu, eta tenplu barrura objektu astunak edo sakrifikatuzko animaliak sartzeko erabiltzen zituztela uste izan da. Baina Debby Sneed arkeologoak beste hipotesi bat du: mugikortasun urria zuten pertsonen sarbidea errazteko jartzen zituzten arrapalak. Batetik, sendatze-tenpluetan bereziki ugariak dira arrapalak. Bestetik, jakina da urritasun fisikoa zuten eta, ondorioz, lanik egin ezin zuten gizonezkoek pentsio moduko bat jasotzeko aukera zutela. “Ez dezagun pentsa antzinako Grezia utopia aurrerakoia zenik”, dio Sneedek, “baina zenbait arazori aurre egiteko konponbide interesgarriak zituzten”. ●

Antzinako Greziako hainbat tenpluen sarreretan, eskailerez gain, arrapalak topatu dituzte. Epidauroko Asklepio medikuntzaren jainkoaren tenpluan (irudian), esaterako, 11 arrapala iraunkorren arrastoak daude. Elementuok ez dira orain arte berriaz aztertu, eta tenplu barrura objektu astunak edo sakrifikatuzko animaliak sartzeko erabiltzen zituztela uste izan da. Baina Debby Sneed arkeologoak beste hipotesi bat du: mugikortasun urria zuten pertsonen sarbidea errazteko jartzen zituzten arrapalak. Batetik, sendatze-tenpluetan bereziki ugariak dira arrapalak. Bestetik, jakina da urritasun fisikoa zuten eta, ondorioz, lanik egin ezin zuten gizonezkoek pentsio moduko bat jasotzeko aukera zutela. “Ez dezagun pentsa antzinako Grezia utopia aurrerakoia zenik”, dio Sneedek, “baina zenbait arazori aurre egiteko konponbide interesgarriak zituzten”. ●